

Inma Errea

Egonkortasuna, abuztuan

M

iguel Sanzek Nafarroan egonkortasuna bermatu behar dela esan du. Hori dakarte egunkariak.

Larrialdietako zerbitzuan, Ana irakaslea eta Sara informatikariak ez dute egunkaria irakurri oraindik, eta hizketan hasi dira, pasabidearen hormetako eskudelen kontra bermaturik, medikuek haien amek partekatzen duten gelan bisita egin bitartean. Hamar minutu lehenago, logelan zirela –Sara, aldi berean almandrogilak egiten, aita-ginarrebari pixoihala aldatzen, ikuzgailutik arropa ateratzen eta beste hainbat zereginetan aritzeko gauza den Valentina etxeokandrearri buruz Jon Alonsok idatzitako *Eulia azaroan* istorioa (*Erretzailleen eremua*) leitzen, eta Ana, Bilbon bizi den ahizparekin telefonoz mintzatzen–, ez zuten elkar ezagutzen, baina orain aspaldiko adiskideen antzera ari dira. Sarak alargundu berria den Carmen amaren historia laburbildu dio Anari. Oinaze handiak eragiten dizkion gaitz batek joa, seme epileptikoaren pilulen gaindosia hartu zuen bezperan, etsialdi batean. “Anaiarenak behar-rean bereak hartu izan balitu, dosi horrekin hila egongo litzateke orain”. Anak ere badu zer kontatu. Aitak ikastetxera deitu dio larriturik, amak bat-batean arnasa hartzeko zailtasunak zituelako.

Medikuek albiste onak dakartzate logelatik. Sararen ama laster joan ahalko da etxera: bizi-konstanteak egonkorturik, bere onera etorri da Carmen. Anari Josefa amak biriketan odolbilda izan duela esan diote, baina desegitea lortu dute, eta emakumea egonkor dago. Dena den, ospitalean gelditu beharko du denbora batez, eta gero ere arta beharko du. Sara eta Ana pozik daude. Behin egoera egonkortuta, irtenbide bat ikusten dute. Ospitalera etorri zirenean zeuzkaten kezak baino gehiago eramanen dituzte bertatik, baina pozik helduko diete berriz larrialdiagatik abandonatu behar izan dituzten laneko zein etxeko ardura arruntei.

Josefa ospitaleko barne-medikuntzako atalera eramatera etorri den Mikel andazai-



MIKEL SANZ

nak irribarre batez agurtu du emakumea. Pedagogia ikasi arren, hamar bat urte egin ditu dagoeneko ospitalean lanean, behin-behineko kontratuekin beti. Orain dela hilabete batzuk oposizioak gainditu zituen, eta lanpostu finkoa bereganatu. Lan egonkorra lortu izana ospatzeko, irailean Lanzarotera joanen da, familiarekin. Gaur lanera zetorrela MP3ko irratian albisteak entzun ditu. Lehenik eta behin, Miguel Sanz berriro ere Nafarroako presidente izanen dela esan dute. Gero, jendeak hama-bost eguneko oporraldiak hartu behar-rean aste betekoak hartzen dituela, gorabehera ekonomikoak medio. Kanariar iriak ere aipatu dituzte, haietara berriro saldoka iristen ari diren etorkinei buruz mintzatzeko. Mikelek gogoan hartu ditu orain egun batzuk Miguel Sánchez-Ostizek idatzitako hitzak. Idazlearen ustez, benetako bidaiakontaerak –benetako bidaiak– pobretasunetik ihesean eta haien herrietan ez duten erosotasunaren bila datozen etorkinen istorio epikoak dira.

Mikelek gogoan hartu ditu orain egun batzuk Miguel Sánchez-Ostizek idatzitako hitzak. Idazlearen ustez, benetako bidaiakontaerak –benetako bidaiak– pobretasunetik ihesean eta haien herrietan ez duten erosotasunaren bila datozen etorkinen istorio epikoak dira

netik ihesean eta haien herrietan ez duten erosotasunaren bila datozen etorkinen istorio epikoak dira.

Bitartean, Nellyk ez daki ezer oraindik, baina laster lanpostu egokia eskainiko diote. Ama ospitaletik irteetan, Anak pertsona bat bilatuko du, gurasoak etxean zaintzeko. Nelly boliviarrak pozik onartuko ditu Anak eskaintako lan-baldintzak, orain arte izan dituenak baino dezente hobek direlako. 27 urterekin Bolivian gizonaren zaintzapean bost

seme-alaba utzi dituen emakumeak hurbilago ikusiko du, posibleago, hiru bat urtean diru pitin bat egin eta bere herrira itzultzeko duen helburua. Anak soldata duina eskainiko baitio, gurasoak zaintzearen truke, eta logela bat. Paperik gabe segituko badu ere, Nellyk inoiz ezagutu duen bizi-modurik egonkorrena izango du azkenik.

Josefari pilulak eman bitartean entzunen dio Nellyk, telebistan, Miguel Sanz presidenteari esaten Nafarroan egonkortasuna bermatze aldera hartu duela berriro gobernatzeko ardura. Nellyk ezer gutxi konprenituko du. ■